



8. JARDUERA KLABEAK

¡PA¡ S.L.-ren arrakasta jarduera modu egokian betetzean oinarritzen da. Jarduera hauek enpresaren funtzionamendu osoan eragina dute.

Lehenik, flotaren ustiapena eta mantentzea. Patineteak beti erabilgarri egon behar dira eta egoera onean. Mantentze lanak sistematikoak izango dira, eta akats txikiak azkar konponduko dira. Horrek segurtasuna bermatzen du eta bezeroen konfiantza handitzen du.

Bigarrenik, teknologia eta plataforma digitalaren kudeaketa. Bezeroek patinetea erraz erreserbatu eta ordaindu al dute, web eta aplikazioa eguneratu eta azkar funtzionatzen dela bermatuko da. Gainera, teknologia erabilgarria da flotaren jarraipena egiteko.

Hirugarrenik, bezeroekin eta bazkideekin harremana. Bezero pozik dagoenean, berriro itzultzen da. Bazkideekin harremanak zaindu behar dira, adibidez udalekin, enpresa laguntzaileekin eta publikitateko enpresekin.

Azkenik, estrategia eta finantzaketa. Enpresaren etorkizuna bermatzeko, estrategia ona eta aurrekontu egokia behar dira. Gastuak kontrolatu behar dira eta diru-sarrera iturriak hobetu.

Laburbilduz, jarduera klabeak funtsezkoak dira enpresaren egonkortasunerako eta hazkunderako.